

2

ZALANTZA-DANTZA

Tira, orain arte nahikotxo ariketa egin ditugu Hiztegi Batuan oinarrituta, eta bada aldatzeko garaia. Euskaltzaindiak bukatu du hiztegiaren lehenengo buelta, eta bigarrenari ekin bitartean bestelako kontuak jorratzea pentsatu dugu.

Dakizunez, udako alearekin batera *Zalantza-dantza* liburuxka banatu genuen, eta geroztik eskaera askotxo heldu zaizkigunez, berriro argitaratu dugu baita salgai jarri ere. Bertan, egunero sortzen zaigun hamaikatxo ezbai argitzeko aholkuak eman genituen.

Aholku horiek praktikan jartzen laguntzeko prestatu dugu ondorengo galdera-sorta. Ea liburutxo ondo ikasita daukagun!

1. a) Ez dut horrelako **astakeririk** inoiz aditu.
b) Ez dut horrelako **astakeririk** inoiz aditu.
2. a) **Hizkuntz** arrotz batean mintzatzen da hori.
b) **Hizkuntza** arrotz batean mintzatzen da hori.
3. a) Ez **aitzakirik** jarri!
b) Ez **atzakirik** jarri!
4. a) **Irakaskuntz** kalitatea ebaluatzeko galdetegi bat prestatu nahi dugu.
b) **Irakaskuntza** kalitatea ebaluatzeko galdetegi bat prestatu nahi dugu.
5. a) Lehengoaren aldean, **gazteri** jantziagoa da oraingoa.
b) Lehengoaren aldean, **gazteria** jantziagoa da oraingoa.
6. a) Denda hartan denetarik aurkitu genuen: mailuak, iltzeak, zerrak **eta abar eta abar**
b) Denda hartan denetarik aurkitu genuen: mailuak, iltzeak, zerrak **eta abar luze bat**.
c) Denda hartan denetarik aurkitu genuen: mailuak, iltzeak, zerrak **eta beste asko**.
7. a) **Adin gutxikoa** bazara ez duzu hauteskondeetan botoa ematerik. Adinekoa bazara, bai.
b) **Adin txikikoa** bazara ez duzu hauteskondeetan botoa ematerik. Adinez nagusia bazara, bai.
c) **Adingabea** bazara ez duzu hauteskondeetan botoa ematerik. Adinduna bazara, bai.
8. a) Atzo eman zuten **aditzera** azkenaurrekoak noiz jokatuko diren.
b) Atzo eman zuten **ezagutzera** azkenaurrekoak noiz jokatuko diren.
c) Atzo eman zuten **jakitera** azkenaurrekoak noiz jokatuko diren.
9. a) **Ados jarri** arte ez dugu erabakirik hartuko.
b) **Adostasunera heldu** arte ez dugu erabakirik hartu.
c) Guztiok **bat etorri** arte ez dugu erabakirik hartuko.
10. a) **Adinekoen** egoitza berria oraindik egin ez eta lehengoa itxi nahi dute.
b) **Agure-atsoen** egoitza berria oraindik egin ez eta lehengoa itxi nahi dute.
c) **Zaharren** egoitza berria oraindik egin ez eta lehengoa itxi nahi dute.
11. a) Joango **al** gara mendira? **Al** badugu, bai.
b) Joango **al** gara mendira? **Ahal** badugu, bai.
c) Joango **ahal** gara mendira? **Al** badugu, bai.
d) Joango **ahal** gara mendira? **Ahal** badugu, bai.
12. a) **Aldun** nagusia buru zutela bildu ziren denak **Aldundian**.
b) **Aldun** nagusia buru zutela bildu ziren denak **Ahaldundian**.
c) **Ahaldun** nagusia buru zutela bildu ziren denak **Aldundian**.
d) **Ahaldun** nagusia buru zutela bildu ziren denak **Ahaldundian**.
13. a) Baimena lortu nuenetik ez dut autorik hartu eta **gidatzea** ahaztu zait. Gainera, baimena **berritza** ere ahaztu zait.
b) Baimena lortu nuenetik ez dut autorik hartu eta **gidatzea** ahaztu zait. Gainera, baimena **berritzen** ere ahaztu zait.
c) Baimena lortu nuenetik ez dut autorik hartu eta **gidatzen** ahaztu zait. Gainera, baimena **berritza** ere ahaztu zait.
d) Baimena lortu nuenetik ez dut autorik hartu eta **gidatzen** ahaztu zait. Gainera, baimena **berritzen** ere ahaztu zait.
14. a) Hau beroal! Ea **aire egokitua** pizten duten.
b) Hau beroal! Ea **aire girotua** pizten duten.
c) Hau beroal! Ea **haize egokitua** pizten duten.
d) Hau beroal! Ea **haize girotua** pizten duten.
15. a) Oso altua zen eta nire **aizinean** eseri zenez, ezin izan nuen antzerkia ikusi.
b) Oso altua zen eta nire **aizinean** eseri zenez, ezin izan nuen antzerkia ikusi.
c) Oso altua zen eta nire **antzinean** eseri zenez, ezin izan nuen antzerkia ikusi.

16. a) Dena aldatu da: **aitzinean** ez genuen horrelako ohiturarik izaten.
 b) Dena aldatu da: **aintzinean** ez genuen horrelako ohiturarik izaten.
 c) Dena aldatu da: **antzinean** ez genuen horrelako ohiturarik izaten.
17. a) Berehala **atzeman** diogu zer nahi duen eta nabarmen gelditu da.
 b) Berehala **antzman** diogu zer nahi duen eta nabarmen gelditu da.
 c) Berehala **hatzeman** diogu zer nahi duen eta nabarmen gelditu da.
18. a) Zuek egia aitortu ez arren, laster **atzemango** dugu erruduna.
 b) Zuek egia aitortu ez arren, laster **antzemango** dugu erruduna.
 c) Zuek egia aitortu ez arren, laster **hatzemango** dugu erruduna.
19. a) Ez genuen nahi, baina **ikusarazi** egin digute.
 b) Ez genuen nahi, baina **ikuserazi** egin digute.
 c) Ez genuen nahi, baina **ikustarazi** egin digute.
 d) Ez genuen nahi, baina **ikusterazi** egin digute.
20. a) Arauak ez daude oso argi eta hamaika zalantza **sorrarazten** dizkigute.
 b) Arauak ez daude oso argi eta hamaika zalantza **sorrerazten** dizkigute.
 c) Arauak ez daude oso argi eta hamaika zalantza **sortarazten** dizkigute.
 d) Arauak ez daude oso argi eta hamaika zalantza **sorterazten** dizkigute.
21. a) Guztion aurrean **arreta deitu** zion, etxeko lanak egin ez zituelako.
 b) Guztion aurrean **errieta egin** zion, etxeko lanak egin ez zituelako.
22. a) Gaur **goizean** bildu gara eta bazkaltzeko ordua arte ez dugu amaitu.
 b) Gaur **goizez** bildu gara eta bazkaltzeko ordua arte ez dugu amaitu.
23. a) Hemendik aurrera, bilera guztiak **arratsaldean** egingo ditugu beti.
 b) Hemendik aurrera, bilera guztiak **arratsaldez** egingo ditugu beti.
24. a) Agiririk aurkitu nahi baduzu, berari eskatu, bera baita elkarteko **agirizaina**.
 b) Agiririk aurkitu nahi baduzu, berari eskatu, bera baita elkarteko **artixibaria**.
 c) Agiririk aurkitu nahi baduzu, berari eskatu, bera baita elkarteko **artixibozaina**.

Hona hemen arau-zatiak izendatzeko gaztelaniaz erabiltzen diren hitzak. Esan zein diren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarirako adostu diren euskarazko ordainak:

25. **Título**
 a) Izenburu
 b) Titulu
26. **Capítulo**
 a) Atal
 b) Kapitulu
 c) Zati
27. **Sección**
 a) Atal
 b) Sekzio
 c) Zati
28. **Artículo**
 a) Artikulu
 b) Atalburu
 c) Azpiatal
29. **Párrafo**
 a) Lerroalde
 b) Paragrafo
 c) Parrafo
30. **Apartado**
 a) Atal
 b) Azpi-atal
 c) Idatz-zati

SOLUZIOAK

1 Gaitza da konparatzea... gaizki egiten bada

1. Hautatu duzuen irtenbidea ez da gainerakoak bezain egokia.
Beste irtenbideak egokiagoak ziren, hautatu duzuen baina.
2. Zuen jarrera gurea baino zurrunagoa da.
Zuen jarrera ez da gurea bezain malgua.
3. Oso opari ederra eman genion alde egin zuenean.
4. Ez dut inoiz hain istorio beldurgarririk entzun.
5. Aurrekoak bezain liburu arrakastatsua idatzi dut.
Aurrekoak bezain arrakastatsua den liburu bat idatzi dut.
Liburu bat idatzi dut aurrekoak bezain arrakastatsua.
6. Lana bukatzeko lain denbora eman digute.
7. Naturaltasun handiz jardun zuen, bizitza osoan besterik egin ez balu bezala.
8. Zenbat eta trebatuago, hainbat (edo orduan) eta errazago egin du lana.
9. Oso langile porrokatua da bera; ez da beste lankideak bezain alferra, behintzat. Horregatik, besteiei baino lan astunagoa eman zioten. Baina lana berak bakarrik egin zuen arren, ez zuten haren izena aipatu ere egin; eta hori nahikoa ez zela, zerbait aurpegiaratu nahi balote bezala begiratu zioten. Hala ere, ez zuen etsi, eta gogotik jarraitu zuen lanean. Ez dut inoiz hain eraman handiko pertsonarik ikusi. Dena dela, gero eta erreago dagoela susmatzen dut.

2 ZALANTZA-DANTZA

- | | |
|-------------|-------------|
| 1. a | 16. c |
| 2. b | 17. b |
| 3. a | 18. a |
| 4. b | 19. a |
| 5. b | 20. a |
| 6. a eta c | 21. b |
| 7. c | 22. a |
| 8. a | 23. b |
| 9. a eta c | 24. a eta c |
| 10. a eta c | 25. b |
| 11. b | 26. b |
| 12. c | 27. a |
| 13. c | 28. a |
| 14. b | 29. b |
| 15. a | 30. c |

OHARRA: *Non fida, han gal* Aurreko aleko akatsen zuzenketa

Barka, barka eta barka. Alajaina! Orain arte aholkuak ematen beti txukun baina, azkenean... *artzainaren etxean, tetra-brik*. Aurreko aleko ariketak ez genituen berrikusi eta hiru soluzio oker eman genituen. Eskerrak irakurle azkar asko ditugun, eta haiek bidalitako oharrengatik konturatu gara egindako akatsez. Doakia gure eskerrona haiei guztiei. Hona hemen 30. aleko *corpus delicti* horiek zuzenduta:

23. ariketa:
Zuzenak **A** eta **D** dira; hau da, *egiaztagiria* eta *ziurtagiria*.

27. ariketa:
Zuzenak denak izan arren, aldatu egin zitzaizkigun euskalki-marka zuten erantzunak. Beraz, zuzenak dira: *itsi*, *zarratu* (**Bizkaian**) eta *zerratu* (**Lapurdi eta Nafarroan**).

34. ariketa:
Argi dago bi aukera bakarrik egonda, ez zegoela **C** zuzena izaterik. Beraz, zuzena **B** da: *zinema*.